

## ARABAKO FORU ALDUNDIA DIPUTACIÓN FORAL DE ÁLAVA

### Xedapenak eta Administrazio Ebazpenak

Zerga Premiatasuneko Araugintza Dekretuak

668

**ZERGA-PREMIAZKO ARAUGINTZAKO 1/2005 DEKRETUA**, otsailaren 1eko Diputatuen Kontseiluarena. Honen bidez alkoholdun edarien eta edari eratorrien gaineko zergari eta tabakoaren inguruko lanen gaineko zergari buruzko arauak Arabako zerga-sistemara egokitu eta berandutza-korrituak ezartzen dira, Estatuaren 2005eko Aurrekontu Orokorrei buruzko abenduaren 27ko 2/2004 Legeak dakartzan aldaketak direla-eta.

Euskal Autonomia Erkidegoan indarrean dagoen eta maiatzaren 23ko 12/2002 Legearen bitartez onartu zen Ekonomia Itunak 33. artikuluan ezartzen duenez, Zerga Bereziak itunpeko tributuoak dira eta Estatuak unean-unean ezartzen dituen arau substantibo eta formalek menpe egongo dira.

Estatuaren 2005eko Aurrekontu Orokorrei buruzko abenduaren 27ko 2/2004 Legea dela-eta zergen alorreko arauetan izan diren aldaketak kontuan hartuz, aldaketa horietara egokitu beharra dago Ekonomia Itunean ezarritakoa betetzeko.

Ikusi da Zerga Araudiaren Zerbitzuak horri buruz emandako txostena.

Horiek horrela, Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko foru diputatuak proposatuta, eta Diputatuen Kontseiluak gaur eztabaidatu ondoren, Arabako Zergei buruzko 1981eko maiatzaren 31ko Foru Arau Orokorrak 13. artikuluan eta Arabako Foru Aldundiaren Antolaketa, Funtzionamendu eta Lege Araubideari buruzko abenduaren 18ko 52/1992 Foru Arauak Foru Aldundiari ematen dizkieten eskumenak erabiliz, premiazko arrazoiengatik,

#### XEDATU DUT:

#### I. KAPITULUA.- ZERGA BEREZIAK

##### 1. artikulua.- Zerga Berezien aldaketa.

Hona hemen Zerga Bereziei buruzko otsailaren 16ko 1/1999 Zerga-Premiamenduzko Araugintzako Dekretuan egin beharreko aldaketak, 2005eko urtarilaren 1etik aurrera ondorioak izango dituztenak:

**Bat.** 23. artikulua 4. eta 5. atalak honela geldituko dira idatzita:

“4. Tarteko Produktuei buruzko Zerga Kanarietan eskatu ahal izango da honako tasa hauekin:

a) Gehienez % 15eko alkohol-gradu bolumetrikoa duten tarteko produktuak: 23,72 euro hektolitro bakoitzeko.

b) Gainontzeko tarteko produktuak: 39,52 euro hektolitro bakoitzeko.”

“5. Kanarietan, alkoholdun edariei eta edari eratorriei 590,60 euroko zerga-tasa aplikatuko zaie alkohol hutsaren hektolitro bakoitzeko, Araugintzako Dekretuaren 40. eta 41. artikuluetan ezarritakoaz gain.”

**Bi.** 26. artikulua honela geldituko da idatzita:

“26. artikulua.- Zerga-tasak.

1. Zerga honen menpe dauden produktuei ondorengo epigrafeetan azaltzen diren zerga-tasak aplikatuko zaizkie:

1 a) epigrafea. Gehienez 1,2ko alkohol-gradu bolumetrikoa duten produktuak: 0 euro hektolitro bakoitzeko.

1 b) epigrafea. % 1,2 eta % 2,8 bitarteko alkohol-gradu bolumetrikoa duten produktuak: 2,50 euro hektolitro bakoitzeko.

2 epigrafea. % 2,8 baino gehiagoko alkohol-gradu bolumetrikoa eta 11 baino gutxiagoko Plato-gradua duten produktuak: 6,80 euro hektolitro bakoitzeko.

3 epigrafea. 11 eta 15 bitarteko Plato-gradua duten produktuak: 9,05 euro hektolitro bakoitzeko.

4 epigrafea. 15 eta 19 bitarteko Plato-gradua duten produktuak: 12,33 euro hektolitro bakoitzeko.

### Disposiciones y Resoluciones Administrativas

Decretos Normativos de Urgencia Fiscal

668

**DECRETO NORMATIVO DE URGENCIA FISCAL 1/2005**, del Consejo de Diputados de 1 de febrero, por el que se adapta al sistema tributario alavés diversas normas tributarias de los Impuestos sobre el Alcohol y las bebidas alcohólicas; sobre las Labores del Tabaco y fijación del interés de demora, introducidas por la Ley 2/2004, de 27 de diciembre, de Presupuestos Generales del Estado para el año 2005.

El vigente Concierto Económico con la Comunidad Autónoma Vasca, aprobado por la Ley 12/2002, de 23 de mayo, establece en su artículo 33 que los Impuestos Especiales son tributos concertados que se regirán por las mismas normas sustantivas y formales que las establecidas en cada momento por el Estado.

Considerando las modificaciones normativas en el ámbito tributario efectuadas en la Ley 2/2004, de 27 de diciembre, de Presupuestos Generales del Estado para el 2005, procede adaptar determinados cambios en ella realizados para dar cumplimiento a lo dispuesto en el Concierto Económico.

Visto el informe emitido al respecto por el Servicio de Normativa Tributaria.

En su virtud, a propuesta del Diputado de Hacienda, Finanzas y Presupuestos, y previa deliberación del Consejo de Diputados en Sesión celebrada en el día de hoy, en uso de las atribuciones que concede a la Diputación Foral el artículo 13 de la Norma Foral General Tributaria de Álava, de 31 de mayo de 1981, y la Norma Foral 52/1992, de 18 de diciembre, -de Organización, Funcionamiento y Régimen Jurídico de la Diputación Foral de Álava-, por razones de urgencia,

#### DISPONGO:

#### CAPÍTULO I.- IMPUESTOS ESPECIALES

##### Artículo 1.- Modificación de los Impuestos Especiales.

Con efectos desde el 1 de enero de 2005, se introducen las siguientes modificaciones en el Decreto Normativo de Urgencia Fiscal 1/1999, de 16 de febrero, de Impuestos Especiales:

**Uno.** Los apartados 4 y 5 del artículo 23 quedan redactados de la siguiente manera:

“4. El Impuesto sobre Productos Intermedios será exigible en Canarias a los siguientes tipos impositivos:

a) Productos intermedios con un grado alcohólico volumétrico adquirido no superior al 15 por 100 vol.: 23,72 euros por hectolitro.

b) Los demás productos intermedios: 39,52 euros por hectolitro.”

“5. El Impuesto sobre el Alcohol y Bebidas Derivadas se exigirá en Canarias al tipo de 590,60 euros por hectolitro de alcohol puro, sin perjuicio de lo dispuesto en los artículos 40 y 41 de este Decreto Normativo.”

**Dos.** El artículo 26 queda redactado de la siguiente manera:

“Artículo 26.- Tipos impositivos.

1. El Impuesto se exigirá, con respecto a los productos comprendidos dentro de su ámbito objetivo, conforme a los siguientes epígrafes:

Epígrafe 1 a). Productos con un grado alcohólico volumétrico adquirido no superior a 1,2 por 100 vol.: 0 euros por hectolitro.

Epígrafe 1 b). Productos con un grado alcohólico adquirido superior a 1,2 por 100 vol. y no superior a 2,8 por 100 vol.: 2,50 euros por hectolitro.

Epígrafe 2. Productos con un grado alcohólico volumétrico adquirido superior a 2,8 por 100 vol. y con un grado Plato inferior a 11: 6,80 euros por hectolitro.

Epígrafe 3. Productos con un grado Plato no inferior a 11 y no superior a 15: 9,05 euros por hectolitro.

Epígrafe 4. Productos con un grado Plato superior a 15 y no superior a 19: 12,33 euros por hectolitro.

5 epigrafea. 19 baino gehiagoko Plato-gradua duten produktuak: 0,83 euro hektolitro bakoitzeko eta Plato-gradu bakoitzeko.

2. Aurreko lerroaldean ezarritakoaren ondorioetarako, Plato-gradua zehazterakoan 0,2 graduko tolerantzia ere onartuko da”.

**Hiru.** 34. artikulua honela geldituko da idatzita:

“34. artikulua.- Zerga-tasa.

23. artikuluan ezarritakoaz gain, honako zerga-tasak eskatuko dira:

1. Gehenez % 15eko alkohol-gradu bolumetrikoa duten tarteko produktuak: 30,29 euro hektolitro bakoitzeko.

2. Gainontzeko tarteko produktuak: 50,48 euro hektolitro bakoitzeko”.

**Lau.** 39. artikulua honela geldituko da idatzita:

“39. artikulua.- Zerga-tasa.

Zerga-tasa 754,77 eurokoa izango da alkohol hutsaren hektolitro bakoitzeko, 23., 40. eta 41. artikuluetan ezarritakoaz gain.”

**Bost.** 40. artikulua 2. paragrafoaren 5a) eta 5b) idatz-zatiak eta 4. paragrafoak honela geldituko dira idatzita:

“5. Karga-tasa. Zergaren karga-tasa 660,40 eurokoa izango da alkohol hutsaren hektolitro bakoitzeko. Zerga Kanarietan eskatu ahal izanez gero, 514,24 euroko zerga-tasa aplikatuko da alkohol hutsaren hektolitro bakoitzeko. Zerbaki honetan ezarritakoa 41. artikuluan ezarritakoaz gain aplikatuko dela ulertzen da”.

“4. Europar Batasuneko kide diren beste Estatu batzuetan dauden destilatzaile txikiak fabrikatutako edari eratorriak sartzea.

Europar Batasuneko kide diren beste estatu batzuetan dauden produktore independenteek fabrikatutako edari eratorriei aplikatuko zaaien zerga-tasa 660,49 eurokoa izango da alkohol hutsaren hektolitro bakoitzeko, urtean gehenez alkohol hutsaren 10 hektolitro ekoizten badute. Zerga Kanarietan eskatu ahal izanez gero, 514,24 euroko zerga-tasa aplikatuko da alkohol hutsaren hektolitro bakoitzeko.”

**Sei.** 41. artikulua honela geldituko da idatzita:

“41. artikulua.- Uztagileen erregimena.

Artisautzako destilazioaren bitartez lortutako edari eratorriak fabrikatik bertatik uztagileek zuzenean kontsumitzeko erabiltzen badira, eta erabili ere erregelamendu bidez ezartzen diren modu eta baldintzetan erabiltzeko bada, 178,16 euroko tasa aplikatuko da alkohol hutsaren hektolitro bakoitzeko. Zerga Kanarietan eskatu ahal izanez gero, 138,05 euroko zerga-tasa aplikatuko da alkohol hutsaren hektolitro bakoitzeko.

Aplikatuko den tasarik handiena uztagile eta urte bakoitzeko alkohol hutsaren 16 litrori dagokiona izango da”.

**Zazpi.** 60. artikulua 2. epigrafea honela geldituko da idatzita:

“ 2 epigrafea. Zigarretak. Honako zerga-tasa bi aplikatuko zaizkie aldi berean:

a) Tasa proporzionala: 100eko 54.

b) Tasa berezia: 3,99 euro 1.000 zigarreta bakoitzeko”.

## II. KAPITULUA.- BERANDUTZA-KORRITUA

### 2. artikulua.- Berandutza-korritua.

Zergei buruzko hainbat xedapenetan aipatzen den berandutza-korritua 100eko 5 izango da, eta 2005eko urtarrilaren 1etik aurrera izango ditu ondorioak.

#### AZKEN XEDAPENAK

##### Lehenengoa.- Indarrean sartzea

Arabako Lurralde Historikoaren ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratu eta hurrengo egunean sartuko da indarrean xedapena hau, eta egun horretatik aurrera izango ditu ondorioak bere artikuluetan xedatutakoak.

##### Bigarrena.- Gaitzea

Arabako Foru Aldundiari baimena ematen zaio xedapen orokor hau garatzeko eta aplikatzeko beharrezko diren bestelako xedapenak emateko.

##### Hirugarrena.- Biltzar Nagusietara bidaltzea

Zerga-premiaza Araugintzako Dekretu hau Arabako Biltzar Nagusietara bidaliko da indarrean dagoena araudiaren arabera baliozko dezaten edo atzera bota dezaten.

Vitoria-Gasteiz, 2005eko otsailaren 1a.- Diputatu nagusia, RAMÓN RABANERA RIVACOBÁ.- Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko foru diputatua, JUAN ANTONIO ZÁRATE PÉREZ DE ARRILUCEA.

Epígrafe 5. Productos con un grado Plato superior a 19: 0,83 euros por hectolitro y por grado Plato.

2. A efectos de lo establecido en el apartado anterior, en la determinación del grado Plato se admitirá una tolerancia de hasta 0,2 grados”.

**Tres.** El artículo 34 queda redactado de la siguiente manera:

“Artículo 34.- Tipo impositivo.

Sin perjuicio de lo dispuesto en el artículo 23, el Impuesto se exigirá a los siguientes tipos impositivos:

1. Productos intermedios con un grado alcohólico volumétrico adquirido no superior al 15 por 100 vol.: 30,29 euros por hectolitro.

2. Los demás productos intermedios: 50,48 euros por hectolitro”.

**Cuatro.** El artículo 39 queda redactado de la siguiente manera:

“Artículo 39.- Tipo impositivo.

El Impuesto se exigirá al tipo de 754,77 euros por hectolitro de alcohol puro, sin perjuicio de lo dispuesto en los artículos 23, 40 y 41.”

**Cinco.** El número 5º de los párrafos a) y b) del apartado 2 y el apartado 4 del artículo 40 quedan redactados de la siguiente manera:

“5º. Tipo de gravamen. El Impuesto se exigirá al tipo de 660,49 euros por hectolitro de alcohol puro. Cuando el Impuesto sea exigible en Canarias, el tipo será de 514,24 euros por hectolitro de alcohol puro. Lo dispuesto en este número se entiende sin perjuicio de lo establecido en el artículo 41”.

“4. Introducción de bebidas derivadas fabricadas en otros Estados miembros por pequeños destiladores.

El tipo aplicable en relación con las bebidas derivadas fabricadas por productores independientes situados en otros Estados miembros que obtienen una producción anual que no exceda de 10 hectolitros de alcohol puro, será de 660,49 euros por hectolitro de alcohol puro. Cuando el Impuesto sea exigible en Canarias el tipo será de 514,24 euros por hectolitro de alcohol puro”.

**Seis.** El artículo 41 queda redactado de la siguiente manera:

“Artículo 41.- Régimen de cosechero.

Cuando las bebidas derivadas obtenidas en régimen de destilación artesanal se destinen directamente desde fábrica al consumo de los cosecheros, en la forma y con las condiciones que se establezcan reglamentariamente, el tipo impositivo aplicable será de 178,16 euros por hectolitro de alcohol puro. Cuando el Impuesto sea exigible en Canarias, el tipo aplicable será de 138,05 euros por hectolitro de alcohol puro.

La aplicación de estos tipos se limitará a la cantidad de bebida equivalente a 16 litros de alcohol puro por cosechero y año”.

**Siete.** El epígrafe 2 del artículo 60 queda redactado de la siguiente manera:

“Epígrafe 2. Cigarrillos. Estarán gravados simultáneamente a los siguientes tipos impositivos:

a) Tipo proporcional: 54 por 100.

b) Tipo específico: 3,99 euros por cada 1.000 cigarrillos”.

## CAPÍTULO II.- INTERÉS DE DEMORA

### Artículo 2.- Interés de demora.

Con efectos desde el 1 de enero de 2005, el interés de demora a que se hace referencia en diversas disposiciones tributarias se fija en el 5 por 100.

#### DISPOSICIONES FINALES

##### Primera.- Entrada en vigor

La presente disposición general entrará en vigor el día siguiente al de su publicación en el BOLETÍN OFICIAL del Territorio Histórico de Álava, y surtirá efectos según lo dispuesto en su articulado.

##### Segunda.- Habilitación

Se autoriza a la Diputación Foral de Álava para dictar cuantas disposiciones sean necesarias para el desarrollo y aplicación de la presente disposición general.

##### Tercera.- Remisión a Juntas Generales

Este Decreto Normativo de Urgencia Fiscal se someterá a las Juntas Generales de Álava, para su convalidación o revocación, de conformidad con lo establecido en la normativa vigente.

Vitoria-Gasteiz, a 1 de febrero de 2005.- El Diputado General, RAMÓN RABANERA RIVACOBÁ.- El Diputado de Hacienda, Finanzas y Presupuestos, JUAN ANTONIO ZÁRATE PÉREZ DE ARRILUCEA.

## Iragarkiak

## OGASUN, FINANTZA ETA AURREKONTU SAILA

OGASUN ZUZENDARITZA

552

83/2005 Ebazpena, urtarrilaren 26koa, Ogasun zuzendariarena. Honen bidez, Balio Erantsiaren gaineko Zergaren aitortpen-likidazioen paperezko ereduak ordezkatzeko euskarri magnetikoen baldintza teknikoak eta diseinua onartzen dira (300, 310, 320, 330, 390 eta 391 ereduak), bai eta Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergarenak eta Sozietateen gaineko Zergarenak ere (110, 111 eta 115-A ereduak).

Apirilaren 20ko Diputatuaren Kontseiluaren 50/2001 Foru Dekretuaren bidez arautu zen Balio Erantsiaren gaineko Zergaren (300, 310, 320, 330, 390 eta 391 ereduak) eta Pertsona Fisikoen gaineko Zergaren nahiz Sozietateen gaineko Zergaren (110, 111 eta 115-A ereduak) aitortpen likidazioak euskarri magnetikoen aurkezteko prozedura.

Ebazpen honen xedea euskarri magnetikoen baldintzak eta diseinua onartzea eta arautzea da, honekin batera doan eranskinen ageri den bezala, apirilaren 20ko 50/2001 Foru Dekretuaren 4. artikuluan zehazten diren aitortpen-likidazioak egiteko paperezko ereduak ordezkatzeko balioko dutenak, hain zuzen ere, eta hori 2004ko eta 2005eko ekitaldietarako.

50/2001 Foru Dekretuak 12. artikuluan xedatutakoaren arabera,

## EBATZI DUT:

Lehenengoa.- Balio Erantsiaren gaineko Zergaren aitortpen-likidazioen paperezko ereduak ordezkatzeko euskarri magnetikoen baldintza teknikoak eta diseinua onartzea (300, 310, 320, 330, 390 eta 391 ereduak), bai eta Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergarenak eta Sozietateen gaineko Zergarenak ere (110, 111 eta 115-A ereduak), ebazpen honen eranskinetan jasota dauden zehaztapenen arabera.

Vitoria-Gasteiz, 2005eko urtarrilaren 26a.- Ogasuneko zuzendaria, ÁNGEL BARRASA SOBRÓN.

PERTSONA FISIKOEN ERRENTAREN GAINEKO ZERGAREN  
ETA SOZIEATEEN GAINEKO ZERGAREN ATXIKIPENAK ETA SARRERAKONDASUN HIGIEZINEN ALOKAIKIRUEN  
GAINEKO ETEKINAK115-A EREDUA  
EPEALDIA: 2005

## 1) EUSKARRI MAGNETIKOEN EZAUGARRIAK

Pertsona Fisikoen Errentaren Gaineko eta Sozietateen Gaineko Zergaren ATXIKIPENEN ETA KONTURAKO SARREREN (115-A EREDUA) aitortpenak aurkezteko euskarri magnetikoen honako baldintzak bete behar dituzte 2005ean:

## A) EDUKIA:

Euskarri bakoitzak 2005eko aitortpeni buruzko informazioa bakarrik edukiko du, eta horiek aurkezteko eman den azken datara egokitu beharko dute. Fitxategi desberdinak aurkeztu beharko dira epealdiaren arabera (hilekoa edo hiruhilekoa).

## B) EUSKARRI MOTA:

*Zinta magnetikoa:*

Pistas: 9.  
Dentsitatea: 1.600 edo 6.250 BPI  
Kodea: EBDCIC, letra larriz.  
Etiketak: etiketarik gabe.  
Markak: zinta hasieran eta amaieran.  
Erregistroak: 1.300 kokalekukoa.  
Blokeo faktorea: 10

*Disketeak:*

3 1/2", alde batekoak nahiz bikoak.  
MS-DOS 3.30 edo bertsio berriagoko sistema eragilea.  
ASCII kodea letra larriz, testu motako sekuentziala.  
Erregistroak: 1.300 kokalekukoa.  
Blokeo faktorea: 1.

Diskete bakoitzak fitxategi bakarra izan behar du, eta izen hau eramango du: AI2005.COPY edo BACKUP aginduarekin egindako TXT fitxategia, diskete batean sartzeko moduko tamaina duen edo ez kontuan hartuta, eta "Diseinu Logikoak" izeneko hurrengo para-grafoan aipatutako hurrenkeran.

## Anuncios

## DEPARTAMENTO DE HACIENDA, FINANZAS Y PRESUPUESTOS

DIRECCIÓN DE HACIENDA

552

Resolución 83/2005, de Director de Hacienda, de 26 de enero, por la que se aprueban las condiciones técnicas y diseño de los soportes magnéticos válidos para sustituir los modelos en papel correspondientes a las declaraciones-liquidaciones del Impuesto sobre el Valor Añadido, modelos 300, 310, 320, 330, 390 y 391, así como del Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas y del Impuesto sobre Sociedades, modelos 110, 111 y 115-A.

El Decreto Foral 50/2001 del Consejo de Diputados de 20 de abril regula el procedimiento de presentación a través de soporte magnético de las declaraciones-liquidaciones del Impuesto sobre el Valor Añadido, modelos 300, 310, 320, 330, 390 y 391, así como del Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas y sobre Sociedades, modelos 110, 111 y 115-A.

La presente Resolución tiene por objeto regular y aprobar las condiciones y el diseño de los soportes magnéticos, según figura en el Anexo adjunto, válidos para sustituir los modelos en papel correspondientes a las declaraciones-liquidaciones señaladas en el artículo 4 del Decreto Foral 50/2001, de 20 de abril, correspondientes a los ejercicios 2004 y 2005.

De acuerdo con lo establecido en el artículo 12 del Decreto Foral 50/2001,

## RESUELVO:

Primero.- Aprobar las condiciones técnicas y diseño de los soportes magnéticos válidos para sustituir los modelos en papel correspondientes a las declaraciones-liquidaciones del Impuesto sobre el Valor Añadido, modelos 300, 310, 320, 330, 390 y 391, así como del Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas y del Impuesto sobre Sociedades, modelos 110, 111 y 115-A, de acuerdo a las especificaciones contenidas en los anexos a la presente resolución.

Vitoria-Gasteiz, a 26 de enero de 2005.- El Director de Hacienda, ÁNGEL BARRASA SOBRÓN.

RETENCIONES E INGRESOS A CUENTA DE LAS RENTA DE  
LAS PERSONAS FÍSICAS Y SOCIEDADESRENDIMIENTOS DEL ARRENDAMIENTO DE  
INMUEBLES URBANOSMODELO 115A  
PERIODOS 2005

## 1) CARACTERÍSTICAS DE LOS SOPORTES MAGNÉTICOS

Los soportes magnéticos para la presentación de las declaraciones de INGRESOS A CUENTA DEL IMPUESTO SOBRE LA RENTA DE LAS PERSONAS FÍSICAS. E IMPUESTO SOBRE SOCIEDADES (MODELO 115A) DE 2005, habrán de cumplir las siguientes características:

## A) CONTENIDO:

Cada soporte deberá contener exclusivamente información relativa a declaraciones del ejercicio -2005- sujetas a la misma fecha de finalización del plazo de presentación de las mismas, debiendo presentar ficheros distintos según el periodo (mensual o trimestral).

## B) TIPO DE SOPORTE:

*Cinta magnética:*

Pistas: 9.  
Densidad: 1.600 ó 6.250 BPI.  
Código: EBDCIC, en mayúsculas.  
Etiquetas: sin etiquetas.  
Marcas: en principio y fin de cinta.  
Registros de: 1.300 posiciones.  
Factor de bloqueo: 10

*Disquetes:*

De 3 1/2" de una o dos caras.  
Sistema operativo MS-DOS 3.30 o superior.  
Código ASCII en mayúsculas, secuencial tipo.  
Registros de: 1.300 posiciones.  
Factor de bloqueo: 1.

Los Diskettes deberán llevar un solo fichero, cuyo nombre será: AI2005.TXT obtenido con COPY o BACKUP dependiendo de que la longitud del fichero permita su inclusión en un único diskette o no, y en el orden que se menciona en el siguiente apartado de "Diseños Lógicos".